

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresan, ekoizteaz gain bestelako jarudera osagarriak burutuko ditugu ere. Gure produktuei etekin handiagoa ateratzeko eta enpresaren produktibitate arloa aztertu ahal izateko.

Alde batetik, enpresaren barneko infrastrukturen berrikusketak egingu ditugu denbora epe zehaztu bakoitzeko . Horrela, makinaren edo bestelako atalen kostuak eta produktibitatea hobetu egingo ditugu denboran zehar, enpresaren oinarritzko atalak geroz eta gehiago hobetuz eta barnetik enpresa hesituz.

Bestetik, webgune bat kudeatuko dugu gure salmentak handitzeko eta jende gehiagori ailegatzeko. Web orri honetan, gure produktuak saltzeaz gain, gure produktuari buruzko informazioa lortu ahaliko dute bezeroek. Gainera, gure email kontaktua jarriko dugu galderak erantzun ahal izateko eta produktuaren feedback-a jaso ahal izateko.

Baita ere gure produktuarekin zerikusia duten arazoak konpontzeko, erreklamazio aukera bidez beti hobekuntza bilatzeko galdetegi-sistema bat erabiliko dugu. Bukatzeko, gure produktua bezeroari egokituz, analisi-dermatologiko batzen bidez gomendio profesionala emango genieke gure bezeroei eta horretarako beste galdetegi bat osatuko genuke.

